



Esp.-kodea: 2015SAPL0015

UDAL PLENOA
Ezohiko Bilkura

BILKURA DATUAK

EGUNA: 2015/12/15	TOKIA Udaletxea
HASIERA ETA BUKAERA ORDUA 18:00 – 18:35	

BILDUTAKOAK:

Lehendakaria: María Ubarretxena Cid (EAJ-PNV)

Zinegotziak: Ibon Arrupe Aldecocca (EAJ-PNV)
Juan Ramon Mendieta Garay (EAJ-PNV)
Ander Garay Zabaleta (EAJ-PNV)
Amaia Ceciaga Garmendia (EAJ-PNV)
Juan Karlos Garitano Ezkurra (EAJ-PNV)
Amaia Azpiazu Aramburu (EAJ-PNV)
Anuska Ezkurra Zubizarreta (EAJ-PNV)
Eneko Barberena Mondragon (BILDU)
Amaia Larrañaga Galdos (BILDU)
Eneko Fernandez Ortiz de Luzuriaga (BILDU)
Maialen Zabaleta Madinabeitia (BILDU)
Jose Luis Encinas Jose (BILDU)
Itxaro Artola Lizarralde (BILDU)
Urki Larrea Ibabe (BILDU)
Oscar Garcia Horrillo (PSE-EE)
Victoriano Fuentes Noguera (PSE-EE)
Anabel Legaz Canflanca (PSE-EE)
Igor Urizar Murgoitio (Baleike)
Eva Abuin Bideburu (Baleike)
Juan Luis Merino Sanabria (Irabazi Arrasate)

Idazkaria: Amaia Gorrotxategi Zubizarreta

Beste funtzionario batzuk: Iñaki Balzategi Garai, Kontuhartzailea.

BILDU EZ DIREN
UDALKIDEAK:



Esp.-kodea: 2015SAPL0015

BERTARATZE
ETA IRTEERAK:

Bilkura hasi denetik bukaeraraino ez da bertaratze zein irteerarik izan.

M. UBARRETXENA (Lehendakaria): arratsaldeon denoi, beno gutxi gorabehera zinegotzi guztiak gaude hemen, eta Plenoari hasiera ematera goaz.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

2015eko azaroaren 3 eta 23ko bilkuretako aktak, aho batez, onartzen dira.

2.- JABEGABETZEKO ESPEDIENTEA HASTEAN, “SAN JOSEPE KALEA -1B FASEA-BERRIRO URBANIZATZEKO PROIEKTUA” EXEKUTATZEKO BEHAR DIREN ONDASUNAK ETA ESKUBIDEAK LORTZEKO. (2015HDJA0001)

Udal Plenoak, aho batez, Hirigintza Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Tokiko Gobernu Batzarrak 2014ko apirilaren 14an erabaki zuen behin betiko onartzea “SAN JOSEPE KALEA BERRIRO URBANIZATZEKO PROIEKTUA”, Arrasateko Udalak sustatua, eta haren helburu nagusia da hobetzea ibilgailuen trafikoa, oinezkoen trafikoa eta auzoko espazio libreak, herriko bizilagunen bizi kalitatea handitze aldera.

Era berean, hobetzen dira auzoko zerbitzuen sareak. Batetik, berritzen da ura banatzeko sarea, eta urpaldoak jartzen dira indarrean dagoen araudia betetzeko. Berritzen da euri-uren saneamendu sarea. Bestetik, lurperatzen dira bai linea elektrikoak bai telefono lineak, gaur egun airetik eta fatxadatik doazenak, eta berritzen da argiteria sarea. Azkenik, zehazten da Udalaren komunikazio sarea.

Ikusita pentsatuta dagoela Berriro urbanizatzeko Proiektu hori exekutatzeko faseka, bigarrena izanik egiteko –berhala- proiektuaren separatan datorrena jasota, 1B FASEA izenekoa.

1B fase hori da hasi eskailera berrituen eremuan, San Josepe eta San Andres kaleak lotzen dituztenak, tarteko parkearen hasieran bertan eta San Josepeko (8, 10, 12 eta 14 atarteak) etxeak hasten diren lekuraino.

Proiektuko obren helburua da, zehazki, konponbidea ematea gai hauei:

- Jarraitzea San Josepe kalearekin, bide banandu batekin ibilgailuen trafikorako, zabaleran 0,50 m arekan eta 5,00 m ibilgailuen bidean, eta oinezkoen espalo bat, zabaleran 2,50 m-koa.



Esp.-kodea: 2015SAPL0015

- San Josepe kalearen goialdean, etxeen blokea hasten den lekutik gertu, proiektatu da biribilgune bat, diametroan 19,5 m, hiri hondakinak biltzeko kamioiak eta herribusak bira egin ahal izateko. Eremu horretan pentsatuta dago jartzea markesina bat bus geltokirako.

. Oraingo zerbitzu sareetan (hornidura, saneamendua, energia, argiteria, telekomunikazioak, eta abar hainbat jardun egin behar da, kasu batzuetan guztiz berritzea dakartenak, eta beste batzuetan hobetzea.

Kontuan hartuta 1B Faseko obra horiek exekutatzeko nahitaez beste batzuen ondasunak okupatu behar direla.

Ikusita jabetza nahitaez kentzeko Legearen 9tik 21 arteko artikulua, haren Erregelamenduaren 15. artikulua eta hurrengoak, eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak.

Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko Batzorde honek hauxe proposatzen dio Udalbatzaren osoko bilkurari:

Jabegabetzeko espedientea hastea, “SAN JOSEPE KALEA -1B FASEA- BERRIRO URBANIZATZEKO PROIEKTUA”n jasota datozen obrak exekutatzeko behar diren ondasunak eta eskubideak lortzeko.

I.- Ondorio horietarako, deklaratzat jotzen da jabegabetzearen xedea edo jomugaren erabilera publikoa, hau da, obrak exekutatzea ibilgailuen trafikoa, oinezkoen trafikoa eta auzo horretako espazio libreak hobetzeko, bai eta horko zerbitzu sareak ere bai (ura banatzea, euri-uren saneamendua, energia elektrikoa, argiteria, telefonoa eta komunikazioak), haren bizilagunen bizi kalitatea hobetze aldera.

Halaber, deklaratzat jotzen da ondasunak okupatu behar izatea, geroago aipatuko direnak, lehen esandako helburuetarako.

II.- Zehatz eta banaka adieraztea zer ondasun jabegabetu behar diren; horien deskribapen xehatua dator espedientean dagoen eranskienan, bai eta horien titularrenak ere, izan ere, haien laburpen taula hemen dator:

JABEGABETZEKO ESPEDIENTEA, “SAN JOSEPE KALEA -1B FASEA- BERRIRO URBANIZATZEKO PROIEKTUA” EXEKUTATZEKO BEHAR DIREN ONDASUNAK ETA ESKUBIDEAK LORTZEKO.

UKITUTAKO ONDASUNEN ETA ESKUBIDEEN LABURPEN TAULA

Zenb.	Jabeak	Helbidea	Ukitutako azalera m ²			Aprobetxamendua	Katastroko datuak	
			expropiación	Ocupación temporal	servidumbre		poligono	parcela
1	HRDOS. DOMINGA EROSTARBE CORTAZAR CELESTINO MANCERO MIGUELEZ JON TXOMIN EROSTARBE GURIDI JOSE M. RUIZ GARRIDO	SAN JOSEPE KALEA Nº 9	263,50			BASOBERA	01	077
2	HRDOS. DOMINGA EROSTARBE CORTAZAR CELESTINO MANCERO MIGUELEZ JON TXOMIN EROSTARBE GURIDI JOSE M. RUIZ GARRIDO	SAN JOSEPE KALEA Nº 9	4,00			BASOBERA	01	077



Esp.-kodea: 2015SAPL0015

3	HRDOS. DOMINGA EROSTARBE CORTAZAR CELESTINO MANCEBO MIGUELEZ JON TXOMIN EROSTARBE GURIDI JOSE M. RUIZ GARRIDO	SAN JOSEPE KALEA N° 9	2,25			BASOBERA	01	077
4	HRDOS. DOMINGA EROSTARBE CORTAZAR CELESTINO MANCEBO MIGUELEZ JON TXOMIN EROSTARBE GURIDI JOSE M. RUIZ GARRIDO	SAN JOSEPE KALEA N° 9			269,02	BASOBERA	01	077
5	HRDOS. DOMINGA EROSTARBE CORTAZAR CELESTINO MANCEBO MIGUELEZ JON TXOMIN EROSTARBE GURIDI JOSE M. RUIZ GARRIDO	SAN JOSEPE KALEA N° 9		181,13		BASOBERA	01	077
6	HRDOS. DOMINGA EROSTARBE CORTAZAR CELESTINO MANCEBO MIGUELEZ JON TXOMIN EROSTARBE GURIDI JOSE M. RUIZ GARRIDO	SAN JOSEPE KALEA N° 9	2,25			BASOBERA	01	077

1. partzela da proiektuan ukitu dauden ondasunen eta jabeen zerrendaren 4. partzela. 2. Partzela da proiektuko 6.a. 3. Partzela da proiektuko 7.a. 4. Partzela da proiektuko 8.a. 5. Partzela da proiektuko 9.a eta 6. partzela da proiektuko 10.a.

Eta errentamendu eskubideak edo beste edozein, ondasunci eraginez gero, esan bezala, eta jasota ez badaude udal bulegoetan.

III.- 2/2006 Legeak, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa, 178-2 artikuluan ezarritakoaren arabera, deklaratzeko urgente Arrasateko Udalaren aldetik okupatzea, jabetza nahitaez kentzeko (jabetza nahitaez kentzeko legearen 52. artikulua) beharrezko ondasuna eta eskubideak San Josepe kalea berriro urbanizatzeko proiektuaren 1B FASEAren obrak exekutatzeko, zeintzuk zehaztuta eta banakatuta dauden zerrendan, goian aipatua.

Presako deklarazio hori oinarrituta dago honetan, hau da, 1B FASE horretako obrak egin beharra dago, ahalik eta arinen, gaur egun inguruan dauden akatsak konpontzeko, gorago deskribatu direnak.

IV.- Akordio hau argitaratzea lurralde historikoan zabalkunde hadinetako egunkari batean, lurralde historikoko Aldizkari Ofizilean eta Udalaren ediktu taulan, lege ezarritako hitzetan eta ondorioetarako.

V.- Aurreko atalean adierazitakoa argitaratu aurretik, epe bat irekitzea, **2016ko urtarrilaren 15era arte**, interesdunekin akordioak lortzeko, aipatu proiektuak ukitutako ondasunak eta eskubideak okupatzeko, eta gonbidatzea, epe horretan, eta 2015eko abenduaren 21a baino lehen, okupazioa egiteko komenikarriak diren prezio proposamenak egiteko elkarrekin ados jarrita.

Ahalmena ematea alkate-udalburuari, edo legez hura ordeztzen duen alkateordeari, batetik, elkarrekin ados jarrita okupazio hori egiteko beharrezkoak diren gestioak eta jardunak egiteko eta, bestetik, goian adierazitako epea igarotakoan, beharrezko jarduerak egiteko, hasitako jabegabetzeko espedientearen tramitazioarekin jarraitu eta tramitazio hori bukatzeko.



Esp.-kodea: 2015SAPL0015

3.- 2016ko ORDENANTZA FISKALEN GAINEKO ALEGAZIOAK ERABAKITZEA ETA HORIEN ALDAKETA BEHIN BETIKO ONARTZEKO PROPOSATZEA. (2015RBAR0027)

Udal Plenoak, aho batez, Ogasun Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Udalbatzarrak, 2015eko urriaren 13an egindako bilkuran, behin-behineko izaerarekin 2016ko ekitaldirako Ordenantza Fiskalak aldatzea onartu zuen. Espediente hori jende aurrean egon da 30 egun baliouduneko aldi batez, interesdunek datorren urterako udaleko zerga-sisteman sartutako aldaketak aztertu ditzaten eta bidezkoztat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ditzaten.

Jende aurreko erakustaldi horretan bi alegazio jaso ditugu, hurrenez hurren Fernando Okina Uranga jaunak eta 106 pertsona gehiagok eta POLO DE INNOVACION GARAIA, S. COOP.-ek bidalita. Lehenak Kirol Zerbitzuak kudeatzen dituen instalazioen alokairu tarifaren gaineko eskaera egin du, eta bigarrenak zaborra jasotzeko zerbitzuan aldaketa bat planteatzen du.

Eskatutakoaren xehetasunak aztertuta, zehazki, hauxe planteatzen dute:

Fernando Okina Uranga jaunak eta beste 106 pertsonak eskatzen dute Musakola, Iturripe eta Uarkapeko kirol instalazioetan erreserba puntualak egiteagatik, eta hauetan beharrezkoa denean argia erabiltzeagatik, ez ordaintzea bazkideen kasuan. Onargarriztat jotzen dute hiruhilabeteko erreserba finkoak ordaintzea erabilera hori, baina ez erreserba puntualen kasuetan.

POLO DE INNOVACION GARAIA, S. COOP.-ak hauxe eskatzen du: zaborra jasotzeko zerbitzuan subjektu pasiboa Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergan altaren arabera izan beharrean, erabilera anitzeko eraikinen kasuetan ordainagiri bakar bat bidaltzea, bertan burutzen diren jarduera guztiak bere baitan hartzen dituen, beraien kasuan ostalaritza jarduera ere kontuan hartuta.

Aurkeztutako alegazioei eta aldaketa proposamenei buruz, horien izaera kontuan izanik, egokia da banan bana aztertzea eskaerak.

Hortaz,

A- Fernando Okina Uranga jaunak eta beste 106 pertsonak aurkeztutako alegazioak ikusirik, eta

KONTUAN IZANIK Fernando Okina Uranga jaunak eta beste 106 pertsonak egindako eskaera aztertu dutela Kirol Saileko arduradunek, eta iritzi dute egokia izan daitekeela erabiltzaile talde



Esp.-kodea: 2015SAPL0015

honek egin duen planteamentua, hiruhilabeteko izaera duten erreserbak egiteko tasa ezarriz, baina hortik kanpo egiten diren erreserba puntualak edo asterokoak bazkide kuotaren barruan sartuta daudela ulertuz eta doakoak izatea. Kirola Batzordeko udal taldeetako ordezkariak ere ados azaldu dira alegazioarekin eta ontzat ematea proposatu da. Ordenantza Fiskaletan honela jasoko da egoera hau:

“- Erreserba tasa ordainduko dute abonatu ez direnek kasu guztietan; abonatuak ordainduko dute, aldiz, hiruhilabeteko erreserba egiten dutenek eta aste bete baino aurrerapen gehiagorekin erreserba egiten dutenek. Aste baten barruan abonatuak doako erreserba egin ahalko dute.”

B - POLO DE INNOVACION GARAIA, S. COOP. enpresak aurkeztutako alegazioak ikusirik, eta

KONTUAN IZANIK zaborra jasotzeko zerbitzuan subjektu pasiboa Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergan (JEZ) altaren arabera izanik, egia da erabilera anitzeko eraikinen kasuetan ez dela samurra tasa honen gestioa. Horrela, gertatzen da mota honetako eraikinetan kasu batzuetan burutzen direla kokapen horretan Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan altan emateko beharrik ez duten jarduerak, eta ondorioz, jarduera hauen informazioa ez dauka Udalak; bestetik, gerta daiteke baita ere, jarduera ekonomikoen gaineko zergan altan emanda egotea hainbat jarduera, baina jarduera hauen lana beste enpresa bateko langileek egitea kokapen bakar batean. Hau da, bulego berdinean, eta langile berdinekin, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan epigrafe bat baino gehiago izatea, eta gaur eguneko araudiaren arabera JEZan dituen epigrafeen arabera ordaindu beharko luke, jarduera bakoitzeko ordainagiri bat.

KONTUAN IZANIK egoera hau zuzentze aldera, zerbitzu teknikoek egindako proposamena dela administratzio edo zerbitzuetako erabilera anitzeko eraikinen kasuetan ordainagiri bakar bat bidaltzea, betiere erabilera anitz horretarako Udal lizentzia edo aurretiako komunikazioa baldin badauka, eta beti eraikinaren azalera osoaren arabera. Egoera berezi hau horrela jasoko genuke Ordenantza Fiskaletan:

“Administrazio bulegoetako edo zerbitzuetako jarduerak egiteko diren lokalek edo eraikinek, baldin eta udal baimena edo aldeaz aurreko komunikazioa badute jarduera hasteko, eta jarduera autonomo ugari badute, zerga ordainduko dute tarifa bakar batekin, guztira azalera eraiki pilotuaren arabera, taula honi jarraiki:

- *Azalera eraikia 0-200 m² artean, tarifa asimilagarria 2 langile baino gehiagori, 5 langile arte.*
- *Azalera 200-500 m² artekoa, asimilagarria 5 langile baino gehiagori, 15 langile arte.*
- *Azalera eraikia 500-1.000 m² artean, asimilagarria 15 langile baino gehiagori, 50 langile arte.*
- *Azalera eraikia 1.000-5.000 m² artean, asimilagarria 50 langile baino gehiagori, 100 langile arte.*
- *Azalera eraikia 5.000-15.000 m² artean, asimilagarria 100 langile baino gehiagori, 500 langile arte.*
- *Azalera 15.000 m²-tik gora, asimilagarria 500 langile baino gehiagori.”*



Esp.-kodea: 2015SAPL0015

KONTUAN IZANIK aldiz, POLO DE INNOVACION GARAIA, S. COOP.ek egiten duen beste eskaeraren inguruan, ostalaritza jarduera ere jarduera orokor horren baitan sar dadin, jardueraren izaera guztiz desberdina izanik, eta sor dezakeen zaborra ere, kontzeptualki, oso desberdina izan daitekeela kontutan hartuz, Ogasun Batzordeak deritzo ez dagokiola jarduera orokor horren baitan lekurik, eta jarduera desberdin bat bezala bere tasa propioari aurre egin behar diola. Are gehiago, Hirigintza ikuspegitik baimena tramitatzerakoan ere udal lizentzia desberdina behar dute jarduerak ostalaritza zerbitzua izan edo bulego edo zerbitzu administratiboa izan. Beraz, bigarren eskaera hau ez da onargarria.

Azaldutako guztiagatik, Ogasun Batzordeak akordio hau hartzea proposatu dio Udalbatzarrari:

1.- Onartzea **Fernando Okina Uranga jaunak eta beste 106 pertsonak** egindako eskaera, kirol instalazioetan erreserba puntualak egiteagatik, eta hauetan beharrezkoa denean argia erabiltzeagatik, ez ordaintzeko. Erabaki hau horrela jasotzen da Ordenantza Fiskaletan:

“ Erreserba tasa ordainduko dute abonatu ez direnek kasu guztietan; abonatuak ordainduko dute, aldi, hiruhilabeteko erreserba egiten dutenek eta aste bete baino aurrerapen gehiagorekin erreserba egiten dutenek. Aste baten barruan abonatuak doako erreserba egin ahaliko dute.”

2.- Onartzea zati batean **POLO DE INNOVACION GARAIA, S. COOP.** enpresak egindako eskaera, eta administratzio edo zerbitzuetako erabilera anitzeko eraikinen kasuetan zabor tasan ordainagiri bakar bat ezartzea, eraikinaren azaleraren arabera. Egoera hau modu honetan jasotzen da:

“Administrazio bulegoetako edo zerbitzuetako jarduerak egiteko diren lokalek edo eraikinek, baldin eta udal baimena edo alde, aurreko komunikazioa badute jarduera hasteko, eta jarduera autonomo ugari badute, zerga ordainduko dute tarifa bakar batekin, guztira azalera eraiki pilatuaren arabera, taula honi jarraiki:

- Azalera eraikia 0-200 m² artean, tarifa asimilagarria 2 langile baino gehiagori, 5 langile arte.
- Azalera 200-500 m² artekoa, asimilagarria 5 langile baino gehiagori, 15 langile arte.
- Azalera eraikia 500-1.000 m² artean, asimilagarria 15 langile baino gehiagori, 50 langile arte.
- Azalera eraikia 1.000-5.000 m² artean, asimilagarria 50 langile baino gehiagori, 100 langile arte.
- Azalera eraikia 5.000-15.000 m² artean, asimilagarria 100 langile baino gehiagori, 500 langile arte.
- Azalera 15.000 m²-tik gora, asimilagarria 500 langile baino gehiagori.”

3.- Ez onartzea **POLO DE INNOVACION GARAIA, S. COOP.** enpresak egindako eskaera, bere eraikinean burutzen den ostalaritza jarduera ere eraikinaren beste jarduera bat bezala har dadin, zabor tasari dagokionean.



Esp.-kodea: 2015SAPL0015

4.- Behin betiko onartzea 2016rako Ordenantza Fiskalen aldaketa, 2015eko urriaren 13an egindako bilkuran hartutako akordioaren terminoetan, akordio honetan jasotako aldaketak sartu eta gero.

5.- Akordio hau argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

E.BARBERENA (EH-BILDU):

Nahi neuke galdetu zelan egingo dan bozkaketa? Ze gaz egindako aldaketen alde, baina gero behin-behineko akordioaren aurka egin genuen eta kasu honetan koherentziaz ere behintzat tokatzen jaku. Orduan, ez dakigu egingo diren alde batetik hori edo osotasunean edo?

M. UBARRETXENA (Lehendakaria):

Printzipioz osotasunean egiten da bozketa

(Grabazioz kanpo Kontubartzaiak adierazi du, ulertzen duela aldaketa bozkatu beharko litzatekeela)

E.BARBERENA (EH-BILDU):

Bozkatzen dena da aldaketa berez.

M. UBARRETXENA (Lehendakaria):

Orduan bozketara pasatuko gara:

Bertaratuak	21	
Aldeko botoak:	21	EAJ-PNV (8), BILDU (7), PSE-EE(3) IRABAZI (1) y BALEIKE (2)
Kontrako botoak:		
Abstentzioak:		

M. UBARRETXENA (Lehendakaria):

Aho batez onartzen da eta hurrengo puntura pasatzen gara.



Esp.-kodea: 2015SAPL0015

4.- 2014/12/31KO DATAREKIN UDAL INBENTARIOAREN ALDAKETA ONARTZEKO PROPOSAMENA. (2015RBAR0037)

2014/12/31ko erreferentziaz, Udalbatza honen Ondasun eta Eskubideen Inbentarioa eguneratu da. Inbentarioaren aldaketa hori Udal Idazkariak egin du, Toki Erakundeen Ondasunen Araudiaren 1372/1986 Errege Dekretuan aurreikusitakoa betetzeko.

Dokumentua aztertu eta hauek kontuan izanik:

- Toki Erakundeen Ondasunen Araudiaren 33.1 artikuluan ezartzen da “Inbentarioaren zuzenketa urtero egiaztatuko dela eta aldi horretan ondasun eta eskubideetan izan diren gorabeherak jasoko direla”.

Udal Inbentarioaren azken egiaztapena 2010eko abenduaren 31ko data erreferentziaz hartuta egin zela.

- Diktamen honi atxikitako dokumentuetan (I-IV ERANSKINAK) 2011, 2012, 2013 eta 2014ko inbertsioak eta hainbat aldaketa zehazten direla,

- Balorazioei dagokienez, bukaerako balioak lortzeko, batetik, kostu historikoaren irizpidea aplikatu dela, nahiz eta ondasun zaharrak (bere kostu historikoa ateratzeko zailak diren ondasunak) Hirigintza sailetik proposatutako irizpide teknikoaren arabera baloratu direla eta, bestetik, ekainaren 26ko 11/93 Foru Arauan aurreikusitako amortizazio irizpideak ezarri dira (ur eta argiteriaren sareen kasuak salbu, atal hauetako amortizazio baloreak, azterketa berezia eta espezifikokoaren bitartez finkatu beharko baitira).

- Sartu diren aldaketekin behar bezala jaso eta identifikatu dira udal jabetzako ondasunak eta eskubideak.

Azaldutako guztiagatik, Ogasun Batzordeak akordio hauxe hartzea proposatu dio Udalbatzarrari:

- Udalbatzaren Ondasun eta Eskubideen Inbentarioaren zuzenketa onartzea 2014ko abenduaren 31ko egoera erreferentziaz hartuta, eta 2011, 2012, 2013 eta 2014ko aldaketak barne hartzen dituen, atxikitako ERANSKINETAN zehaztutako balioen eta kontabilitate (balio gordinak, amortizazioak eta balore garbiak) zenbakien arabera.

I.URIZAR (BALEIKE):

Oso denbora gutxi iruditzen zaigula kasu honetan eman zaigun epea udal inbentarioa aztertzeko. 2010etik atzeratzen joan dena ez dakigu ondion zergatik eta ez zaigula zentzuzkoa iruditzen orain onartzea azterketa sakon bat egin barik. Adibide bezala, oraindik ez dakigu zehazki zenbat etxebizitza,



Esp.-kodea: 2015SAPL0015

lokal, etab dituen udaletxeak jabegoan eta are gutxiago bakoitzaren egoera. Horregatik kontra bozkatuko dugu. Gaia hau atarian daukagun hurrengo urtean apropos eta sakontasunez aztertzeke.

E. BARBERENA (EH-BILDU):

Guk alde emango dugu botoa baina bai apur bat ikusten dugu eta batzordeen bertan komentau genuen behar dugula inbentarioa beste era batean ikusteko tresna bat. Nolabait udalaren jabetzak eta ondasunak auzoka ikustea, bestelako agian soportte grafikoago batzuetan guk ere lan egiteko bueno bestelako tresna eta erraztasun batzuk edukitzeko egin zan hori proposamena. Egia esan, ez da urgente dan gai bat baina bai hurrengo garaietan lantzeko modukoa ikusten dugu.

M. UBARRETXENA (Lehendakaria):

norbaitek hitza nahi du? Bueno ba nik aprobeztatzen dut esateko guk ere arazo horrekin topatu garela. Udaletxean sartu eta egia da oso zaila egiten dela udaletxeak dituen etxebizitz lokal eta zerbitzu, guztien argazki bat aurrena edukitzea, ez bakarrik udalaren jabetza dauzenak baizik eta horren kostua zeineri lagata dagoen, ze zerbitzu ematen dan, zelako baloraketa egiten duten herritarrek, hau da, zerbitzu bakoitzaren grafika guztia ez? Eta bueno horri irtenbide bat emateko bueno ba aurrekontua ikusiko zenuetenez partida bat satu dugu. Ze hurrengo urterako ia bueno legealdi honetan proposatuko dana egitea eta gainera EUDELEren eskutik, egingo dugu bueno zerbitzu karta bat, non udalaren ondasunak ere aintzat hartuko diren. Bueno horrela argazki bat edukiko dugu eta ez gu bakarrik orain gobernuan gaudela baizik eta hemendik aurrera ba datorrena gobernuan azkenean oso herra mintza aproposa edukiko du benetan ikusteko bueno ba udalak dauzkan ondasun guztiak zertarako bideratzen diren beraien kostuak eta herritarrak egiten baloraketak. Puntua bozkatzera pasatuko gara.

Bertaratutakoak	21	
Aldeko botuak:	19	EAJ-PNV (8), BILDU (7), PSE-EE(3) eta IRABAZI (1)
Aurkako botuak:	2	BALEIKE (2)
Abstentzioak:		

Beraz, onartzen da.

5.- 2015EKO AURREKONTUAREN EXEKUZIO EGOERARI BURUZKO INFORMAZIOA, 2015-09-30ean. (2015RBAR0033)

2015eko aurrekontuaren exekuzio egoerari buruzko informazio bidaltzen du batzordeak 2015-09-30ari buruz, zenbaki laburpen hauen arabera:

A - GASTUAK (Datuak mila eurotan)

A.1 - ITXITAKO URTEALDIETAN DAUDEN ORDAINDU GABEKO GASTUAK (AURREKO URTEALDIETAKOAK)(Aukea sartuta)



Esp.-kodea: 2015SAPL0015

ZENBATEKOA GUZTIRA	ORDAINKETA GUZTIRA	BAJAK	ORDAINDU BARIK 15/9/30
2.235,42	2.196,40	83,19	39,02
	98,25%		1,74%

A.2 - TXERTATUTAKO KREDITUAK (EXEKUZIOAN DAUDEN GASTUAK, 2014KO AURREK. LIKIDAZIOTIK)

ZENBATEKOA GUZTIRA	BAIMENDUA	ERABILIA (adjudikatua)	ONARTUTAKO OBLIGAZIOAK (exekutaturik)	ORDAINDUA	SOBERAKINA
3.042,17	2.985,48	2.510,07	1.775,07	1.775,07	56,69
100%	98,13%	82,50%	58,34%	58,34%	1,86%

A.3 – 2015KO URTEALDI KORRONTEA EDO AURREKONTUA (mila euroan)

KAPITULUA	AURREK.	GASTU BAIMENDUA	GASTU ERABILIA (adjudikatua)	AGINDUTAK OA (exekutaturik)	ORDAINDUA	ERABILGARRI
I Pertsonalaren gastuak	10.545,22	7.627	7.627	7.627	6.890,31	2.918,22
	100%	72,32%	72,32%	72,32%	65,34%	27,68%
II Ondas. eta zerb. erost.	9.983,36	7.456,62	7.300,44	5.605,28	5.587,19	2.526,74
	100%	74,69%	73,12%	56,14%	55,96%	25,31%
III Maileguen inters.	38,29	21,29	21,29	21,29	21,29	17
	100%	55,61%	55,61%	55,61%	55,61%	44,39%
IV Transferentzia korronteak	4.983,77	3.589,46	3.588,06	3.178,99	3.138,02	1.394,31
	100%	72,02%	71,99%	63,78%	62,96%	27,98%
VI Inbertsioak	5.296,06	2.683,91	2.512,18	1.078,69	1.024,71	2.612,15
	100%	50,67%	47,43%	20,36%	19,34%	49,33%
VII Kapit. transferentziak	787,26	598,22	598,22	594,24	347,62	189,04
	100%	75,98%	75,98%	75,48%	44,15%	24,02%
VIII .Finant. aktib.	1.492,19	746,74	746,74	571,74	566,33	745,45
	100%	50,04%	50,04%	38,31%	37,95%	49,96%
IX Mailegu amortz.	962,16	732,21	732,21	732,21	732,21	229,95
	100%	76,10%	76,10%	76,10%	76,10%	23,90%



Esp.-kodea: 2015SAPL0015

URTEALDI KORRONTEA GUZTIRA	34.088,31	23.455,47	23.126,15	19.409,46	18.307,69	10.632,84
	100%	68,80%	67,84%	56,93%	53,70%	31,20%
URTEALDI KORRONTEA + TXERTATUTAKO KREDITUAK GUZTIRA	37.130,48	26.440,94	25.636,22	21.184,53	20.082,76	10.689,54
	100%	71,21%	69,04%	57,05%	54,08%	28,79%

A.4 – DATOZEN EKITALDIAK (mila euroan)

URTEA	GASTU BAIMENDUA	GASTU ERABILIA
2016	186,89	186,89
		100%
2017	155,95	155,95
		100%
2018	11,89	11,89
		100%
GUZTIRA DATOZEN EKITALDIAK	354,73	354,73
		100%

B – DIRU SARRERAK

B.1 ITXITAKO URTEALDIETAN DAUDEN ORDAINDU GABEKO SARRERAK (AURREKO URTEALDIETAKOAK)

ZENBATEKOA GUZTIRA	KOBRANTZAK GUZTIRA	BAJAK	KOBRATZEKO DAUDENAK 2015-09-30
4.565,67	1.434,42	540,11	2.591,15
100%	35,63%	11,82%	64,36%

B. 3 2015EKO URTEALDI KORRONTEA - AURREKONTUA (mila eurotan)



Esp.-kodea: 2015SAPL0015

KAPITULUA	AURREK.	ONARTUTAKO ESKUBIDE GARBIAK (likidatutako diru- sarrerak)	KOBRANTZA GARBIAK (% onartutako eskubideei buruz)	KOBRATZEKO DAUDENAK (% onartutako eskubideei buruz)	AURREK. DESBIDERATZ.
I Zuzeneko zergak	7.842,50	7.422,56	5.633,64	1.788,93	-419,94
	100%	94,64%	75,89%	24,10%	-5,36%
II Zeharkako zergak	550	1.169,07	667,90	501,17	619,07
	100%	212,55%	57,13%	42,86%	112,56%
III Tasak eta prezioak	7.256,35	5.837,33	5.492,11	345,22	-1.419,02
	100%	80,44%	94,08%	5,91%	-19,56%
IV Transferentzia korrontek	14.141,68	10.584,21	10.230,22	353,99	-3.557,47
	100%	74,84%	96,65%	3,34%	-25,16%
V Ondare. sarrerak	238,15	115,90	92,04	23,86	-122,25
	100%	48,66%	79,41%	20,58%	-51,34%
VI Inoren. errealak.	206,21	329,24	328,87	0,36	-123,03
	100%	159,65%	99,89%	0,10%	-59,65%
VII Kapit. transf.	218,90	165,14	13,26	151,88	-53,76
	100%	75,44%	8,02%	91,97%	-24,56%
VIII Finan. akt. aldak.	735,43	704,97	507,12	197,85	-30,46
	100%	95,85%	71,93%	28,06%	-4,15%
IX Maileguak	1.067,96				
	100%				
URTEALDI KORRONTEA GUZTIRA	32.257,18	26.328,42	22.965,17	3.363,26	-5.928,76
	100%	81,62%	87,22%	12,77%	-18,38%
DIRUZAINZAKO SOBERAKINA, 2014KO LIKIDAZIOKOA	4.873,30				
URTEALDI KORRONTEA + SOBERAKINA + TXERTATUTAKO ZORDUNKETAK GUZTIRA	37.130,48	26.328,42	22.965,17	3.363,26	-10.802,06



Esp.-kodea: 2015SAPL0015

	100%	70,91%	87,22%	12,77%	-29,09%
--	------	--------	--------	--------	---------

6.- INFORMAZIOA 2015EKO AURREKONTUAREN KREDITUAK ALDATZEKO ESPEDIENTEEI BURUZ, TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2015EKO 3. HIRUHILEKOAN ONARTUAK. (2015RBAR0034)

Udalbatzak, gai honen berri hartu du:

2015eko Aurrekontua betetzeko arauen, 4. atalean, 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako kreditu aldaketen espedienteei buruz informazioa Udalbatzarrari hiruhilero bidaltzeari dagokionez, Ogasun Batzordeak espedienteen laburpen honen berri ematen dio Udalbatzarrari, kronologiaz ordenaturik, 2015eko 3. hiruhilekoan onartuak:

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2015-07-23koa, onartzen duena 3.000 €-an handitzea “1.1400.226.334.00.03 – Erakusketa Bixente Barandiaran errementaria” kontu sailaren diru kopurua, “1.1400.226.326.00.00 – Enplegu ekintzak” kontu sailatik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2015-07-23koa, onartzen duena 23.950 €-an handitzea “1.0500.471.133.00.01 - Garibai parking-eko defizita” kontu sailaren diru kopurua, “1.0500.601.151.00.00 – Udala auzoko urbanizazioa” kontu sailatik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2015-07-23koa, onartzen duena 3.150 €-an handitzea “1.1620.226.342.20.99 – Uarkape: beste gastu batzuk” kontu sailaren diru kopurua, “1.0800.601.454.00.00 – Meatzerreka errege bidea” kontu sailatik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2015-07-23koa, onartzen duena 45.000 €-an handitzea “1.0500.601.153.22.00 - Zalduspe urbanizazioa” kontu sailaren diru kopurua, “1.0500.601.151.00.00 – Udala auzoko urbanizazioa” kontu sailatik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2015-09-17koa, onartzen duena “1.1401.131.241.00.00 – Enplegu sustapena: aldi baterako langileak”, 62.635,15 €-an, eta “1.1401.160.241.00.01 – Enplegu sustapena: gizarte segurantza”, 21.438,88 €-an handitzea; gastu hori finantzatuko da diru sarreretako “2.1400.401.000.00.01 – Lanbide Enplegu aktibitateak” kontu sailarekin, kreditu gaikuntzaren erregimenean.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2015-05-11koa, onartzen duena udal langileei ordaintzea 2012ko abenduko ordainsari bereziaren %75,96ko zatiaren aurrerakina; eta, horren ondorioz, aurrerakin berri bat onartzean (hasiera batean ateratakoaren zuzenketa, langile berri bat),



Esp.-kodea: 2015SAPL0015

inplizituki, “1.0600.833.920.00.01 – 2015eko ordainketa bereziaren aurrerakina” kontu saila 801,77 €-an handitzen da, eta gastu hori finantzatu da diru sarreretako “2.0601.833.000.00.01 – Ordainketa berezien aurrerakinen itzulketa” kontu sailarekin, kreditu gaikuntzaren erregimenean.

7.-ZUBILLAGA HILTEGIA S.LKO UDAL ORDEZKARIAK IZENDATZEA. **(2015SKOR0001)**

Uztailaren 13ko osoko bilkuran, besteren artean honako erabakia hartu zen:

***LEHENENGO.-** Jarraian zehazten diren udal bonetako zinegotzien izendapenak onartzea, Arrasateko Udalaren ordezkari gisa jardun dezaten zehaztutako erakundeetan, orain arte indarren zuden izendapenak baliogabe aitortuz.*

(...)

ZUBILLAGA HILTEGIA, S.L.:

OSCAR GARCIA HORRILLO

Ordezkoa: IBON ARRUPE ALDECOCEA

Ikusita, abenduaren 10ean Oscar García Horrillo jaunak udalean aurkeztutako idatziaren bidez, bere izendapenari uko egin diola (azaroaren 30eko efektuekin, idatzian aipatzen den legez), honakoa proposatzen zaio Arrasateko Osoko Bilkurari:

LEHENENGOA: Zubillaga Hiltegia S.L.ko ordezkari titular moduan Ibon Arrupe Aldecocea jauna izendatzea eta ordezkari moduan Juan Carlos Garitano Ezcurra.

BIGARRENA: Horren berri ematea ordezkari titular eta ordezkari eta Zubillaga Hiltegia, S.L.ri.

I.URIZAR (BALEIKE):

Pixkat harrizten gaituela bost hilabete soilik igarota arduradunetz aldatzea gero be aukera bat izango litzakeela alderdiei beste alderdiei zabaltzeko aukera edukitzea eta holakotxe erabakietan gustauko jakula parteharzte moduren baten zabaltzea herramintaren batzuekin pentsatuz galdetzea honen iritzia honi buruz.

O.GARCIA (PSE-EE):

Printzipioz gustautako litzaidake arratsaldeon guztioi azaltzea zergatik egin diodan uko izendapenari. Arazo pertsonalak direla eta ezinezkoa izaten zait behar den moduan gauzak atenditzea eta horergatik egiten dut uko gauza behar dien moduan egin behar direlako. Besterik ez eta denon jakin dezazuen.



Esp.-kodea: 2015SAPL0015

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Bertaraturakoak	21	
Aldeko botuak:	18	EAJ-PNV (8), BILDU (7), PSE-EE(3)
Aurkako botuak:		
Abstentzioak:	3	BALEIKE (2) eta IRABAZI (1)

Beraz, onartzen da.

8.- HASIERAKO ONESPENA EMATEA KIROL EREMUA, ETA BERTAKO BULEGO ETA LOKALAK LAGATZEKO ARAUDIARI. (2015AAUK0013)

Udal Plenoak, aho batez, Kirola Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Arrasaten duela urteetatik kirol taldeek eta ikastetxeek instalazioen eremuak, eta bertan dauden udal bulego eta lokalak lagatzea eskatu izan dute. Hori horrela, urtero, eskaera bidez utzi izan dira eremu horiek.

2014ko abenduan, AUKEA desegin da eta Udaleko Kirol departamentura pasa dira kirol arloko eskumen guztiak, 2015eko urtarrilean. Horrez gain, kirol talde eta ikastetxeek giltzak dituzten kirol instalazio eta lokaletarako, eskaera sistema aldatu, eta lagapen sistemara pasatzea erabaki du Udalak.

Ondorioz, Udalak aipatutako eskatzaile guztientzat aplikagarri izan daitekeen Ordenantza orokor hau prestatu da, eta ondoren, hortik eratorritako hitzarmenak sinatu beharko ditu kirol talde eta ikastetxeekin.

Hori guztia ikusita, Kirola Batzordeak proposatzen dio Udal Plenoari:

LEHENENGO.- Hasierako onespena ematea ARRASATEKO KIROL EREMUA, ETA BERTAKO BULEGO ETA LOKALAK LAGATZEKO ARAUDIARI.(Ikus II. eranskina)

BIGARREN.- Espedientea jendaurrean erakusgarri izango da 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzen denetik, egoki iritzitako erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ahal ditzaten interesatuek. Epe horretan erreklamaziorik zein iradokizunik aurkeztu ezean, 7/1985 Legeko 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, araudia behin betikoz onartutzat joko da, eta 7/1985 Legeko 70. 2 artikuluan xedatutakoa betetzeko, Erregelamenduaren testu osoa argitaratuko da.



Esp.-kodea: 2015SAPL0015

9.- HASIERAKO ONESPENA EMATEA ARRASATEKO KIROL INSTALAZIOEN ARAUDIARI. (2015AAUK0013)

Udal Plenoak, aho batez, Kirola Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Orain arte, Arrasateko Udal Kirol instalazioen araudia 1988ko AUKEAren estatutuetan, 1997ko Zerbitzuen Araudian eta geroztik egin diren Musakola, Iturripe eta Uarkapeko arau orokorretan, nahiz araudi solteetan oinarritu da.

Udal Plenoak, 2014ko ekainaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen hasiera batean onartzea AUKEA – Arrasateko Udalaren Kirol Erakunde Autonomoa - izeneko tokiko erakunde autonomoa desegitea, 2014ko abenduaren 31tik aurrera. Erabakian gainera jasotzen da Arrasateko Udalak beregain hartuko duela kirol zerbitzuaren kudeaketa, 2015eko urtarrilaren 1ean, zuzeneko kudeaketaren modalitatean, Kirolen zinegotzigoari atxikirik.

Bestalde, baina parte-hartzea bultzatzeko, kirolarekin lotura duten hainbat eragileren ordezkari ahalbidetuko duen Arrasateko Kirol Aholkularitza Kontseilua eratu du Udalak.

Gertaera hauek guztiak kontuan hartuta eta araudi guztia eguneratu nahiz bateratzeko, ondorengo araudia prestatu da.

Hori guztia ikusita, Kirola Batzordeak proposatzen dio Udal Plenoari:

LEHENENGO.- Hasierako onespena ematea ARRASATEKO KIROL INSTALAZIOEN ARAUDIARI.(Ikus I. eranskina)

BIGARREN.- Espedientea jendaurrean erakusgarri izango da 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzen denetik, egoki iritzitako erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ahal ditzaten interesatuek. Epe horretan erreklamaziorik zein iradokizunik aurkeztu ezean, 7/1985 Legeko 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, araudia behin betikoz onartutzat joko da, eta 7/1985 Legeko 70. 2 artikuluan xedatutakoa betetzeko, Erregelamenduaren testu osoa argitaratuko da.

10.-ALKATETZAKO EBAZPENEN BERRI HARTZEA

Udal Plenoak alkatetzak emandako ebazpenen berri hartzen du.

11.- GALDE-ESKEAK.

E.BARBERENA (EH-BILDU):



Esp.-kodea: 2015SAPL0015

Domekan irakurri genuen periodikoan arrasateko periodiko baten ba zelan egin behar dan azokan partehartze prozesu berri bat eta bueno lehenengo galdera da berriz egin behar dan ze jada Egina dago eta bueno bigarren aldia enteratzen garela prentsatik azokaren inguruko gaiez eta daukagu plena galdera batez be batzordeetik gai hori ez dalako pasa ez? Partehartze prozesu bat egingo zela.

Uste dugu hori dala lekurik aproposena batzordea dala hitz egiteko hortaz, iruditzen jaku gaia inportantea dela behar dauela lanketa sakon bat horretarako espazioak badazela eta badakigu hemen foko behean ez dela lekurik aproposena baina horregatik espreski ekarri dugu gu be bai jarteko mahai gainean herritarrei bueno be bezala ari garela enteratzen gaiena eta bueno gure ardura da bai azokan ganoraz ematea prozesu hau eta gero bestalde batzordeak edukiz hustuak ez daitezela izan ez? Hau da, batzordeak dira hortarako foroak eta bueno horregatik egiten dugu galdera da. Ea noiz dagoen asmoa gai hau lantzeko.

O.GARCIA (PSE-EE):

Como entiendo que esto es un tema muy sensible y que todos queremos enterarnos bien. Voy a hacer mi intervención en castellano porque además así, me es bastante más fácil expresarme con claridad. Respecto al tema de que en la comisión no ha pasado lo de la famosa plaza de abastos y demás. En el inicio de la legislatura se dijo en la comisión de hecho podrás verlo en las actas que se paraba el proyecto que había anteriormente y que se iba a poner en funcionamiento un proyecto nuevo y explicamos en esa misma comisión que hasta que el gobierno no tuviese claro que modelo de plaza no queremos sino necesita Arrasate el que necesita no íbamos a emprender ni vamos a dar carnaza para nada. Primer paso es identificar las necesidades que tiene el pueblo Arrasate y después en comisión efectivamente y con otros actores sociales como pueden ser BAGARA, como pueden ser los propios comerciantes y demás, identificar el modelo de plaza que queremos y hacia donde tenemos que ir. Respecto a que no ha pasado por comisión, si ha pasado lo que pasa es que hasta que no se tome una algo en concreto, veo ilógico darle vueltas a algo que ni siquiera sabemos hacia donde va a ir. Pero si paso por comisión. Y si se trajo el tema.

Respecto a lo que ha salido en prensa evidentemente creo que lo que quiere este ayuntamiento en esta nueva etapa es que la gente tome parte que se involucre y que decida los proyectos no como en etapas anteriores en las cuales recibían unos pocos y muchas veces sin luz ni taquígrafos aquí se trata de que puedan participar, que todos puedan aportar, y que el día de mañana la plaza no sea de un equipo de gobierno sino que sea del pueblo.

Yo veo impecable el proceso hasta el momento se esta tomando la decisión una vez que se tome, se pondrá encima de la mesa y se estudiara los agentes sociales tomaran parte, se identificaran necesidades y se vera que clase se proyecto, se dará opción a que los ciudadanos voten y aporten y terminado ese proceso la plaza como ya te he dicho antes Eneko será la plaza de todo Arrasate, la plaza de nuestro pueblo, no la plaza de unos pocos. No se si necesitas mas aclaraciones desde luego las puedes pedir en comisión, y de hecho en la ultima comisión estuvimos hablando también del tema solapadamente tampoco oficialmente pero siempre que se ha hecho alguna interlocución, alguna pregunta, algún comentario siempre por lo menos en la comisión que yo presido se hablado del tema.



Esp.-kodea: 2015SAPL0015

Nunca se ha echado un tema sin mas con lo cual entiendo poco las quejas que presentas pero vamos en cualquier si tienes alguna duda mis puertas están abiertas siempre.

E.BARBERENA (EH-BILDU):

Akusazio larria pentsatzen jat esatea gutxi batzuen erabaki zela batez be prozesuak eduki zauenean jende askon ekarpena egon zan kolektibo etorkinen ekarpena egon zan, haurren ekarpena, egon zan eragile sozial ezberdinen ekarpena. Gainera euretako asko gehituak dira berriz, orduan, luz y taquigrafos uste dut eragile horri preguntatzea dela bueno zu ez zaz ados nik ikusten dut beste era baten baina akusazioa iruditzen jat larria zentzu hortan noski berba egingo dugu eta behin berri zegin behar dan guztietan ez zentzu horretan hala eta be azterketa nik uste legislaturaro egin dala eta uste dut egin dan proposamen osoena eta sendoena izan dela azken lau urteetan osatu dan proposamena ez? Geratu zana hartutako erabaki baten inguruan ba zuri edo zuen gobernuei ez jakolako gustatzen zentzu horretan espazio bat eta egin zan analisi bat baina bueno edukiko aukera imajinatzen dut azoka izango dela 2016ko gaietako bat edo hurrengo hilabeteetako gaietako bat edukiko aukera baina gu aktak irakurriko dugu baina iruditzen jaku gaia pasa dela baina ez dela benetan hartu adarretatik. Ez dakigu benetan hain argi komentau dan irekiko dela partehartze prozesu bat berriz erabakiko gauza bat berriz ere erabakitzeke eta zentzu hortan horregatik eskatzen genuen aklarazioa gure behintzat harridura puntu bate karri duzkulako domekako artikuluak baina bueno betiko aukera jarraitzeke.

O.GARCIA (PSE-EE):

Gauza bat besterik ez. Ez dakit zergatik daukazun horrenbesteko harridura argi geratu zenean prozedura hori edo aurreko proiektu hori bertan behera gelditu zenean ez dakit zergatik etortzen jatzun holako harridurarik, argi baldin badago proiektu hori aurrera ez dugula eraman behar eta gainera bai EAJk bai Psoek hemengo gobernua bere programetan eramaten zauenean guretzako eta horrela erabaki zuten biztanleriak guretzako ez zela toki aproposa gaurkoa besterik ez.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Buena beste galdera eskaerarik badago ez? Buena orduan gaurko plenoari amaiera emango diogu. Eskerrik asko denoi.

Eta beste gairik ez dagoenez, Udal Plenoburuak, arratsaldeko 18:35tan, amaiera ematen dio bilkurari. Eta nik Idazkariak hori guztia ziurtatzen dut akta hau jasoz.

Arrasaten, 2015eko abenduaren 15a

IDAZKARIA

LEHENDAKARIA



Esp.-kodea: 2015SAPL0015

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta

María Ubarretxena Cid